



Ana Gutiez - Leire Martins
Aixerrota BHI, 14-15

Aurkibidea

Fernando Morillo	2
Sarrera	3
<i>Hiru istripu eta bi amodio</i>	
Kokapena	4
Gaia	5
Argumentua	5
Istoriaa	5
Pertsonaiak	7
Egituraketa	8
Iritzia	9
Bibliografia eta webgrafia	10

Fernando Morillo

Fernando Morillo
Grande Azpeitian jaio
zen 1974ko
maiatzaren 3an.

Txikitatik jakinmin
handiko pertsona izan
zen eta bai
burugogorra ere.

Eskolan oso
despistatua zen, baina
oso gogoko zuen
irakurtzea eta

kiroletan ez zen oso

trebea. Baina, eskolan Einsteinen biografia txikitxo bat irakurri ondoren, bera bezalakoa izan nahi zuela ohartu zen eta astronomiaz, fisikaz, zenbakiez, biologiaz... maitemindu zen.

Bere lehen poesia, maite zuen neska bati idatzi egin zion, eta hortik aurrera beste poesia batzuk idatzi zituen, gehienak, lotsaren ondorioz. Horrekin batera, ipuinen zirriborroak egiten hasi zen.

Fisika ikasketak hasi baina ez zituen amaitu, gero Filosofia ikasketak egin zituen eta horiek bai, amaitu zituen.

Obra batzuk idatzi zituen eta editorial batzuetara bidali, eta batzuk editatu ziren. Hortik aurrera, liburu gehiago idatzi eta zenbait sari deigarri batzuk eman zizkioten, adibidez, Donostia Hiria ipuin lehiaketan, Bilboko Hiriko akzesita...

Sari asko irabazi ditu orain arte, besteak beste, 2014an, Juul Saria irabazi zuen, DBH mailan, *Hiru istripu eta bi amodio* obragatik (irakurri dugun liburua).



Sarrera

Egilea: Fernando Morillo
Argitaletxea: Gaumin
Argitalpen-urtea: 2013

Sinopsia

Anuskak eta Galderrek mendi-istripu lotsagarri baten ondoren ezagutzen dute elkar. Anuska liluraturik dago, baina Galderrek sekretu beltz bat ezkututzen du. Txinpart distiratsu baten ondoren, bereizi egiten dena.

Patuak, istripu larriago bat ekarriko dio Anuskari, eta orduan Izortze ezagutuko du, oso neska berezia. Hainbeste gal dezake burua neska batek beste bategatik? Nahasmena gutxi ez balitz, Galder etorriko zaio berriro.

Anuskak Marie Curie zientzialaria du eredu, eta bihotzari kasu egin nahi dio. Zer demontre egin al du, taupadek bi bide desberdin seinalatzen badituzte aldi berean?

Berezitasunak

Anuskak eta Galderrek bete-betean bizi dituzte nerabegaroko konfliktuak: betiko lagunen lehen ika-mikak, izaera eta gorputz aldaketak, krisiaren gorriak eragindako desorekak... Zertarako gaude prest aitaren izena salbatzearen? Posible ote bi pertsona aldi berean maitatzea? Eta zure sexu berekoa baldin bada bat? Maitasuna, hezkuntza, umorea, homosexualitatea... Anuskak Marie Curie emakume bikainaren bizitza hartzen du mundua ulertzeko eredu. Mariaren diziplina eta nortasuna, emakumea zela aurpegiratzen ziotenean, edo haren ontasun mirezgarria giza-minaren Amodioa, malkoak eta ametsak sentimenduz beteriko liburu batean.

Hiru istripu eta bi amodio

Kokapena

Istoria hau, XXI. mendean kokatzen da, mugikorrek eta watsapa erabiltzen dituztelako protagonistek.

Ezkarain hasten da. Hara joaten dira Anuska eta gelakideak eskiatzera eta hor, istripu lotsagarri baten ondoren Anuskak Galder ezagutzen du. Gero, Deustura bueltatzen dira, hor bizi dira pertsonaia nagusi ia guztiak, Galder Zorrotzan bizi baita, eta Deustun, auto istripu larri baten ondorioz, Anuskak Izortze ezagutzen du.

Obran Sondikako aireportua ere aipatzen da. Horra joaten delako Galder denboratxo libre bat duenean. Hegazkinak asko gustatzen zaizkio eta hor Pruden ezagutzen du, bere hegazkina garbitzearen truke, bueltatxo bat emango zion gizonak eta azkenean lagunak egingo dira. Pagasarrin ere istorioaren parte bat kokatuta dago, Anuska Izortzerekin joaten delako eta han ematen dutelako lehenengo musua.

Edukia

Gaiak

- Amodioa

Amodioa beti da nahasgarria eta bizigarria, baina inoiz ez nerabezaroan bezainbeste.

- Adiskidetasuna

Nerabezaroak konflikto-gune ugari ditu.

- Homosexualitatea

Sentimenduak adieraztea eta nerabezaroan batez ere, sarritan ez da erraza izaten gure barruan zer gertatzen den asmatzea, edo bihotzak norantz bideratzen gaituen jakitea.

- Marie Curie

Anuskak benetan miresten duen zientzialari aparta.

Argumentua

Anuska, Gutune eta Laida, betidanik lagunak izan dira eta txikitan beren printze gorriak hautatzen dituzte. Urteak pasata, klasekideekin Ezkaraira egindako bidaian, Anuskak bere printze gorria, Galder, ezagutzen du, istripu lotsagarri baten ondorioz.

Galder burutik kendu ezinik bueltatzen da Bilbora Anuska. Baina, egun batean, auto istripu bat gertatzen da Anuskaren ondoan, kalean zegoenean, eta hor, zaurituei laguntzen, Izortze ezagutzen du, oso neska bizia, burutik kendu ezin duena.

Orain Anuska bi pertsona ditu buruan. Igande batean biekin geratzen da, (bat goizean eta bestea arratsaldean) eta bi hitzordu lotsagarrien ondoren, Galderrekin geratzen da. Beste aldetik, Laida eta Izortze lagun oso onak egiten dira eta azkenean amodio bat hasten dute eta Gutune bere printze gorriarekin hitz egiten hasten da.

Istoria

Ezkarain hasten da istorio hau, Anuska, Gutune, Laida eta eskolakideak, eskiatzera joaten dira. Euren artean, Galder izeneko mutil bat dago, Anuskaren printze gorria (txikitan, Laida Gutune eta Anuska, printze gorri bat aukeratu zutelako du izenorde hori).

Galderrek sekretu bat gordetzen du, urte batzuk lehenago institututik bota zuten problema batzuegatik, baina orain hor zegoen Inazio irakaslearekin, baina zergatik? Galder ez zegoen bakarrik, bere anaia txikia, Lamar, berarekin zegoen. Haur hau eskapatu eta Anuskarekin topatzen da, eta atzean Galder etorri eta Anuskarekin hitz egiten du lehen aldiz. Elkarrizketa horretan, Galderrek “Elurrezko Neska” deitzen dio Anuskari, oso zuria zelako.

Arratsalde horretan, eskiatzera joaten dira, eta Anuskak istripu oso lotsagarria izaten du (lehenengo istripua). Txizagura etortzen zaio eskiatzen zegoenean eta eskiak kendu gabe, prakak jaisten ditu, baina mugitzen hasten da, beherantz doa eta oso azkar! Orduan Galderrekin egiten du talka, baina honek ez daki Anuska izan denik. Hurrengo egunean, Anuskak

ez du elurretara joan nahi eta kafetegian Galderrekin topatzen da eta besoa ia apurtuta dauka eta hitz egiten dute.

Bilbora bueltatzen dira, Anuskak ezin du Galder burutik kendu. Laidari kontatzen dio eta hau, Galderren gauza oso onik ez duela entzun aitortzen dio, adibidez, eskolako diru kutxa lapurtu zuela, baina Inaziok (irakasle bat) hori ez dela egia aitortzen dio Anuskari, norbaitek lapurtu zuela, baina Galder ez zela izan.

Hurrengo egunean, kaletik zihoan eta auto istripua gertatzen (bigarren istripua) da beraren alboan eta bizkarrean min egiten du, baina jendea laguntzen hasten da, jendeari laguntzen zegoen Izortze, neska beltzaran bat begi oso politekin, eta Anuskarekin hitz egiten hasi eta berarekin ospitalera joaten da. Hor, hizketan egoten dira, bizitzari buruz, istripuari buruz eta zenbakiak ere ematen dizkiote elkarri. Izortzek Anuskaren eskua laztantzen du, honek Anuskari sentsazio desberdinak eragiten dizkio. Hori eta gero, Anuskak ezin du Izortze burutik kendu, neska batekin maiteminduta egongo da?

Gutuneri azaltzen dio sentitzen duen guztia, eta honek biek geratzeako gomendatzen dio. Beste alde batetik, Galder Sondikako aireportura joaten da, hegazkinak gustuko dituelako; hor Pruden ezagutu zuen, pilotu zahar bat, abioneta bat zuena. Pruden, Galderri erakusten dio hegazkin bat pilotatzen. Baina Galderrek neska-lagun bat izan arren, Anuska ezin du burutik kendu, eta Prudenek Anuska berriz ikustea gomendatzen dio.

Egun batean, Anuska eta Gutune buelta bat ematera joaten dira, Gutunek bidea markatzen du, baina etxe baten alboan lau aldiz pasatzen direnez, Anuska zerbait susmatzen hasten da. Orduan, elkarrizketa bat entzuten dute, etxe horretatik zetorrena, eta Anuskak berehala Galderren ahotsa bereizten du, bere aitarekin hitz egiten hari zen, antza aitak lapurtu zuen eskolako dira, baina Galderrek bera izan zela esan zuen aita kartzelara ez joateko. Galder etxetik atera eta Anuskarekin topo egiten du, honekin hitz egin eta telefonoa eskatzen dio.

Hurrengo egunean, Izortzeren mezu bat dauka, berarekin gelditu nahi duela igande goizean esaten dio. Gero, Galderren mezu bat ere ailegutzen zaio, berarekin gelditu nahi duela igande arratsaldean esaten du. Gutuneri komentatzen dio, eta hau biei buruzko informazio gehiago bilatu nahi du, Laidari buruz.

Anuska biekin geratzen da, lehenengo, Izortzereki; honek pottokaz ibiltzeko mendi batera eramaten du, gero, hitz egiten dute eta bai musukatu ere! Orain Anuskaren buruko nahasketa handiagoa da. Arratsaldean, Galderrekin, Sondikako aireportura joaten da eta Prudenekin batera, abionetan buelta bat ematen dute. Baina bat-batean, Prudenek konortea galtzen du (hirugarren istripua) eta Galderrek hegazkinaren aginteak hartzen ditu. Azkenean dena ondo ateratzen da. Horren ondoren, Bilbora bueltatzen dira biak eta hitz egin ondoren, musukatu egiten dira.

Egun horren ondoren, Anuskak oso argi du nor aukeratu, Galder, baina institutuan, Gutunek ez ditu oso berri onak, Galderrek neskalaguna zeukan! Horrek asko haserretzen du Anuska baina Galder, berarekin geratzea baino lehenago bere neskalagunarekin moztu zuela aitortzen dio.

Laidak Izortze ezagutzen du, eta amodio bat izaten hasten dira eta Gutune bere txikitako printze gorriarekin hitz egiten hasten da.

Pertsonaiak

- **Anuska.** Hamabost urteko neska da, Gutune eta Laidarekin, trinitate santua osatzen du.
Azal zurbila du eta begi beltz oso espresiboak, Galderrek “elurrezko neska” deitzen dio.
- **Gutune.** Laida eta Anuska dira bere bi lagun onenak eta hamabost urte ditu.
Ilea afro antzera darama, laztua eta begiak asko (baina asko) zabaltzeko ohitura zuen, hatzak beti entxufe batean sarturik balitu bezala.
- **Laida.** Modelo bat bezain dotore mugitzen zen, bere naturaltasun zorabiagarriaz, burua segurtasunez altxatua, irribarre argitsua ahoan, ile laranja luzea batera eta bestea astindua.
- **Galder.** Galder hamahiru urte zituen. Beste mutil batzuekin jolasten zen tarteka, baina, bakarrik ibiltzea zuen gustuko. Mutil haren begi ameslariak harrapatu zuten Anuska, haren oihartzun bitxia eta egun hartatik aurrera bere printze gorria da. Mutil isila zirudien, eta urrunegia gainerakoez.

- **Izortze:** Neska beltzaran gazte bat zen. Ilea motz eta txandal urdin estua zeukan, baina Anuskaren atentzioa haren begi izugarrero argiek bereganatu zuten.
- **Lamar.** Galderren anai txikia da, Down sindromeduna, Anuskarekin jolastea zeharo gustatzen zaio eta oso ondo konpontzen da harekin.
- **Pruden.** Hegazkin pilotu bat da, Galderren konfiantzako laguna. Prudenek konortea galdu duen plantak egiten ditu, Galder bakarrik lurreratzeko eta Anuska inpresionatzeko.

Egituraketa

Istoria hau kapitulutan banatuta dago, baina kapituluaren barruan, istorio desberdinak daude eta hauek marra baten bidez banatuta daude. Egitura lineala erabili du, baina hasieran, txikitan gertatutako gauza bat kontatzen du eta flash-back era erabiltzen du horretarako.

Narratzailea, hirugarren pertsona da, baina ondo ezagutzen ditu pertsonaien sentimenduak.

Balorazioa

Obra honek 146 orrialde ditu sei kapitulutan banatuta. Kapitulu bakoitzak hogeita sei orrialde ditu, gutxi gorabehera.

Istoria hirugarren pertsonan dago idatzita baina sarritan pertsonaia nagusiaren, hau da, Anuskaren pentsamenduak agertzen dira, eta horiek lehenengo pertsonan adierazten ditu idazleak.

Liburu hau 14 urte baino gehiagokoentzat dago gomendatua, eta gure ustez oso egokia da gure adinerako zeren eta gure nerabezaroaren arazoak kontatzen ditu eta horrela nahiko identifikatuta sentitu gaitzke. Hamabost

urterekin guztiok dugu pertsonaia nagusiek dituzten nerabe kalitateak: gure bihotz eta sentimenduen nahasmena, gure lagunekin ika-mikak, institutuko ikasketak eta norbaitenganako mirespena.

Liburuaren puntu berezi bat eta guretzako zuzenena eta egokiena gure adinetarako izan da homosexualitateaz hitz egitea, zeren eta adin honekin gure gustuak aurkitzen eta ezagutzen ari gara eta gure adineko batzuk mutil edo neska bat baztertu eta zirikatzen dute homosexuala edo bisexuala sentitzeagatik eta hori egin beharrean errespetatu egin beharko lukete.

Obra honek gustuko dugun guztia dauka: dibertigarria da baina tentsio eta tristura momentuak ditu, amodiozko istorio guztietan bezala; gainera, oso identifikatuta sentitu garenez liburua nolabait gehiago bizitzen duzu eta zure burua Anuskarenean sartzea bilatzen duzu.

Beste gauza on bat da gure erakoa dela, hau da. wtxapa erabiltzen da, gaur egungo gazteak bezala.

Adin honetan batez ere mutil eta neska askok ligatzera doaz liburuan agertzen den bezala.

Gutxien gustatu zaiguna agian izan da Galderren aita eta haren sekretuen korapiloa, oso endredatua zelako eta azken finean tontakeria hutsa.

Uste dugu liburu hau neskek mutilek baino gehiago goza dezaketela protagonista neska delako eta horrelako istorioak nahiago ditugulako, baina, oso ondo idatzita dago, lexiko ulergarri eta komunarekin.

Istoriok, hasieratik harrapatu gintuen eta bi edo hiru egunetan irakurri eta komentatu genuen oso erraz irakurtzen delako. Guk benetan gomendatuko genieke 13 edo 14 urteko gazte guztiei.

Bibliografia eta webgrafia

- *Hiru istripu eta bi amodio*, Fernando Morillo. Gaumin.
- <http://fernandomorillo.eu/index.html>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/hiru-istripu-eta-bi-amodio/hiru-istripu-eta-bi-amodio.pdf>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/nola-egiten-da/eleberri-lana/index.html>
- <https://drive.google.com/a/aixerrotabhi.eu/file/d/0BzGie6ILK8h1WXpqa2E4Qkc0Tm8/edit>
- <http://atalak.eus/ikasgela-materialak/il-hiztegitxoak/eleberriak-bilduma/hiru-istripu-eta-bi-amodio/hiru-istripu-eta-bi-amodio.jpg>